



POLITIKA: **KALITATEA,** **INGURUMENA, ENERGÍA eta** **LAN SEGURTASUN, OSASUN eta ONGIZATEA**

Danobat Koop. Elkartean makina erreminta, giltza eskurako lineak eta berariazko aplikazioetarako soluzio aurreratuak garatu eta hornitzen ditugu. Gehien bat goi mailako teknologia duten sektoreei eta baldintza tekniko altuak eskatzen dituzten bezeroei zuzenduta, gure ezagutza garatzearekin batera etorkizuna elkarrekin eraikiz.

Eta honela egiten dugu ...

KUDEAKETA ARDURATSUAREKIN...

Danobat, S. Coop-en misioak balioan jartzen ditu: gure bezeroak asebetetzearen garrantzia kalitatezko produktu eta zerbitzuekin, pertsonen lan eta bizi kalitate maila gorenak eskaintzea eta gure ingurunea etengabe errespetatzea.

Gure misioa lortzeko, kudeaketa-sistema bateratu bat ezarri dugu, etengabeko hobekuntzan eta ondorengo konpromiso hauetan oinarritua:

- *Eragiten dizkiguten legezko eta erregelamenduzko baldintzak betetzen direla bermatzea, bai eta borondatez hartutako konpromisoak ere.*
- *Jarduera etengabe hobetzeko helburuak eta xedek ezartzea, kudeaketa-sistema integratuaren eremu guztietan.*
- *Proposatutako xede, helburu eta konpromisoak lortzeko, beharrezkoak diren komunikazio, informazio, pertsona eta baliabide materialen eskuragarritasuna bermatzea.*
- *Gure bazkideen eta langileen garapen profesionalean eta giza garapenean aktiboki laguntzea, prestakuntzaren eta sustapenaren bidez, lanpostuen kalitatea eta segurtasuna etengabe hobetuz, eta enpresaren lehiakortasuna.*

POZIK DAUDEN BEZEROEKIN...

- *Bezeroa Danobateko antolaketa-ereduaren erdian kokatuz, bere eskakizunak etengabe betez eta bere behar eta itxaropenak erabat asebeteko dituzten produktu eta zerbitzuak garatuz eta hornituz.*
- *Gure bezeroen segurtasuna, produktibitatea eta efizientzia areagotzeko lanean, errendimendu bikaina eskaintzen duten soluzio teknologiko eta iraunkorrak sortuz, bere bizi-zikloko fase guztietan energia-kontsumoa eta ingurumen-kutsadura murrizten dituztenak.*

HAZKUNDE JASANGARRIAREKIN...

Ingurumenean utzi dezakegun aztarna minimizatzen helburuarekin, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- *Hazkunde jasangarria jarraitzea, eguneroko jardueretan ingurumenarekiko errespetuz jardunez, gizarte oparago, justu eta osasungarriago bat lortzeko, egungo nahiz etorkizuneko belaunaldientzat.*
- *Kutsatzaile diren substantziak edo isurketak saihestea edo ahalik eta gehien murriztea eta sortzea.*
- *Energia-eraginkortasuneko eta ingurumena errespetatzeko irizpideak ezartzea, bai gure produktuen diseinuan eta garapenean, zein ekipo eta zerbitzu berriak eskuratzean.*
- *Ingurumena babestea, beti kutsadura prebentzioaren printzipioaren pean arituz, eta gure jardueraren ingurumen-eragina minimizatuz.*
- *Uraren erabilera arduratsua eginez gure aztarna hidrikoa minimizatzea.*

GURE LANGILE ETA KOLABORATZAILEAK ZAINDUZ...

Gure langile eta laguntzaileen ongizatea eta segurtasuna bermatzeko, ondorengo konpromisoak hartzen ditugu:

- *Lan-baldintza seguruak eta osasungarriak eskaintzen dituzten ekipoak eta instalazioak eskura jartzea.*
- *Gure jardueraren arriskuak identifikatu eta modu proaktiboan eta eraginkorrean ebaluatzea, horiek ezabatzen edo murrizten helburuarekin.*
- *Segurtasun eta osasun maila handia lortzea erakundeko kide guztientzat, arriskuen prebentzioarekin, kalteen gutxitzeaz eta osasunaren zaintzaren bidez.*
- *Enpresa osasuntsuaren ohiturak sustatzea, langileen giro psikosozialari eta osasun integralari arreta berezia jarritz.*
- *Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistema planifikatzean, gauzatzean, ebaluatzean eta hobetzean langileen kontsulta eta haien parte-hartze aktiboa sustatzea.*

KOLEKTIBOAK BEREGANATUTAKO JOKABIDE ETA BALOREEKIN .

Aurreko guztia jokabide-kode baten pean dago, zeinengatik hitz ematen dugun:

- *Zintzotasunez jardutera jokabide zintzo eta duin baten bidez, gure erakundearen konfiantza sortuko duena, kudeaketa eta komunikazioaren gardentasunean oinarrituta.*
- *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekiko errespetua, aukera-berdintasuna, duintasun pertsonala eta norbanako bakoitzaren eskubideak sustatuz.*
- *Genero-berdintasuna sustatzea kudeaketa-eremu guztietan, sexu-jazarpen, tratatu txar eta joera edo sexu arazoengatik diskriminazio egoerak saihestuz.*
- *Bortxazko, derrigortutako edo adingabekoen lan esplotazio inolako formarik ez onartzea.*
- *Iruzur eta ustelkeria forma guztien aurka lan egitea, estortsioa eta eroskeria barne.*
- *Funtzio bakoitzerako definitutako hizkuntza erabiltzea, euskara lan hizkuntza nagusia izanik eta Euskal Herriko lantegietan lehentasunez erabiliko duguna.*

Gure elkarte-egitura dela gure kooperatiba-garapen balioak definitu ditugu, halanola: **Berrikuntza Globala, Bezeroarentzako Orientazioa, Auto-lidergoa eta Auto-exijentzia, Talde lana eta Lankidetzeta, Pertsonak Erdigunean** kokatuz eta **Gizarte Eraldatzaileak** izatea..

Ez dugu zalantzarik, hartutako konpromisoak betetzea posible egiteko, zuzendaritzaren lidergo argia eta gure bazkide, langile eta kolaboratzaileen inplikazioa eta lankidetzeta behar direla, kultura **partehartzailea** eta **etengabeko hobekuntza** sustatuz.

Politika hau gure Kudeaketa Sistema Bateratuak oinarri duen erreferentzia-esparrua da, eta horren bidez garatu eta inplementatu da, hain zuzen ere, ISO 9001 Kalitatearen kudeaketa, ISO 14001 Ingurumen-kudeaketa, ISO 45001 Lan Osasun eta Segurtasunaren kudeaketa eta ISO 50001 Energiaren kudeaketa, nazioarteko arauen baldintzen arabera garatu dena.

Danobat Koop. Elkartearen zuzendaritzak erabat onartzen du politika honen definizioa, guztioi mesede egiten digula sinetsita, eta horretarako, gure bazkide eta langile guztien laguntza eskertzen du.

Xabier Alzaga

Zuzendari Nagusia

DANOBAT S. COOP.

Elgoibar 2019ko Uztailaren 15ean